



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2017-10-23

BILERA ZENBAKIA: 43

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Hiru neska eta mutil bat

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Azkeneko aktaren onarpena
2. Etxeko lanak
3. Tipi tapa dinamizazioa eta helduentzako gimnasia.
4. Aldizkaria.
5. Aurrekontuak.
6. Arnasketa ikastaroa.
7. Bono Sozialak.
8. Gizarte Larrialdietako Laguntzak
9. 2018ko Egutegia eta lan dinamika.

### 1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA

Ez dago ekarpenik eta onartuta geratzen da.

### 2. ETXEKO LANAK

- **JANARI BANAKETARAKO LOKAL BERRIAREN ARAUDIA.**

Aurreko bileran aipatutakoa oinarri hartuta, janari banaketarako araudiari, lokal berriaren erabilerako atal bat gehitu zaio.

Bertaratutakoen artean banatu da, begiratu eta hurrengo lantalderako ekarpenak egin daitezten.

Lokal berriaren egokitzapena nahi baino gehiago atzeratzen ari da, igeltserotza lan bat egin beharra dago, eta, aurrekontua egin behar da. Ahal den heinean datorren urte haserako martxan jarri nahi da.

### **GOIEKI. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO INFORMAZIOA.**

Goiekirekin harremanetan jarri da Gizarte Langilea. Bertan ez dago iada Gizarte gaietarako teknikaririk, aholkularitza zerbitzu bat dago, honek



eramaten ditu aurrera urteko azterketak. Aurrera begira Goierriko erakunde eta eragile ezberdinekin biltzea aurreikusita dute generoaren inguruko lan bateratu bat egin ahal izateko.

Hori aurrera eraman bitartean, Gizarte Zerbitzuetatik, indarkeria matxista kasuetan zer egin, eta, Gizarte Zerbitzuetatik zein zerbitzu eskaintzen diren esku orri bat sortzea erabaki da, botikan, medikuarenean, etab uzteko. Horrez gain, martxoko aldizkarian ere gai hau jorratzea erabakitzen da, zerbitzu gida honen bidez.

### **HARRERA EGUNA.**

Errolda eskatu da, eta, deiak egin dira. Asteazkenean, hilak 25 egingo da harrera eguna eta 5 pertsonak eman dute baiezkoa.

Aurrerantzean harrera eguna urtean behin egitea planteatzen da, Ekainean (eguraldia lagun). Ekainetik ekainera erroldatutako herritarrei zuzendua izango da.

### **AZAROAK 25**

Azaroak 25a larunbata izanik, kontzentrazioa ostiralean egitea erabakitzen da. Pankarta txukun bat egingo da egun horretarako, datorren urteetarako ere erabilgarri izango dena. Puntu lila ere egun horretan presente egon dadin, etxeetan jartzeko banderolak ote dauden galdetuko da: Bestalde pegatinak egitea adostu da, komertzio eta eraikin publikoetan jartzeko handiak eta egunean bertan jendeari banatzeko txikiagoak.

- PANKARTA – 146€ + BEZ
- PEGATINA TXIKIAK (80x80mm) – 100 pegatina = 84€
- PEGATINA HANDIAK (200x200mm) – 10 pegatina = 12€

### **2018ko MARTXOAK 8**

Martxoak 8rako bertsolari posibleen listatik bat aukeratu da, eta, deituko zaio. Itsasondoko batukadarekin ere hitz egingo da.

### **3. TIPI TAPA ETA GIMNASIA:**

1.700 euro daude eskatuta panelak berritzeko osasunaren zaintza gaitzat hartuta, pentsatuta dago. Abendua baino lehen jakingo da diru sarrera izango den. Erantzunaren arabera pentsatu beharko da panelekin zer egin.

Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzan eskatuta dagoen gimnasia



eta tipi tapa dinamizatzeko laguntza, izapidean da.

Gimnasia 13 bat pertsonak eman dute izena.

#### **4. ALDIZKARIA**

Oraingo alean elkarrizketa egingo zaio Idoia, Tipi Tapa eta helduen gimnasia dinamizatzaileari.

Hurrengo alean genero indarkeriaren inguruko zerbitzuen berri emango da. Galderak prestatu eta argazkiak atera behar dira (Tipi Tapa - Gimnasia)

#### **5. AURREKONTUAK**

Datorren urtera begira finkatu beharreko aurrekontuaz hitz egin da, GLL eta EEL aurrekontua bere horretan utziko da, berdintasunei gaiari lotutako aurrekontuaren inguruan hausnartu da, 3000 euro inguruan finkatzeko aukera ikusi da.

#### **6. ARNASKETA IKASTAROA**

Yoga irakasleak arnasketa eta estresaren inguruko tailer bat emango du. Berarekin hitz egin ondoren azaroak 30, 18:00tan izango dela ziurtatu dugu.

#### **7. BONO SOZIALAK**

Lantaldeko kide batek bono sozialen berri izan du, etxeko gastuak ordaintzeko energia enpresek izaten dituzten kontratu bereziak dira, Gizarte Langileak gaiaren inguruko informazioa jasoko du datorren saiorako.

#### **8. GLL-**

Gizarte Larrialdietako laguntzarako eskariak daude, eta, ez dago dirurik. Jaietan bokadiloetatik ateratako diru kopuru bat bideratuko da horretara.

#### **9. 2018KO EGUTEGIA**

Datorren urterako agendaz hitz egin da.

Memoria tailerra eta bingoarekin jarraitu egingo da. Memoria tailerrerako urte osorako liburuxka sortzea proposatzen da.

Hileroko film emanaldiarekin ez du jarraituko lantaldeak, aurrera eramateak suposatzen duen lanak zailtasunak eragozten dizkio lan taldeari eta denborarekin bertaratu den pertsona kopurua jaitsi dela ikusi da. Emanaldi solteren bat



ematearen ideia ez da baztertzen.

Bestalde, harrera eguna, sei hilean behin egin beharrean urtean behin egingo da, ekainean.

Datorren urteko bilera kopuruaren inguruan ere hausnartu da, lantaldean den jende kopurua, eta, gauzak aurrera ateratzeko ahalmena ikusita bilera bi hilean behin egiteko aukera mahai gainean jarri da. Neguan ordua aurreratzea ere planteatu da. Hurrengo bilera azaroaren 20an izango da, 18:00etan.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Janari banaketa araudian proposamenak egin	Azaroak 20	Denak
Genero indarkeria kasuei aurre egiteko dauden udal zerbitzuen gida eskema egin	Azaroak 20	Gizarte Langilea
Azaroak 25erako puntuaren banderolak lortu.	Azaroak 20	Gizarte Langilea
Azaroak 25erako pankarta eskatu, diseinua egin	Azaroak 20	Erkuden
Martxoak 8rako bertsolariekin hitz egin	Azaroak 20	Ruth
Martxoak 8rako batukadarekin hitz egin	Azaroak 20	Javi
Idoiaren elkarrizketarako galderak prestatu	Azaroak 20	Denak
Tipi tapa argazkiak	Azaroak 20	Erkuden
Idoiarekin harremanetan jarri	Azaroak 20	Ruth
Arnasketa ikastaroa, arduradurarekin hitz egin, data konkretatu	Azaroak 20	Ruth
Bono sozialaren inguruko informazioa jaso.	Azaroak 20	Gizarte Langilea.

#### HURRENGO BILERA

**Hurrengo bilera, 2017ko azaroaren 20an egingo dugu, astelehena arratsaldeko 6tan Udaletxean.**

Gai ordena:

- Aurreko aktaren onarpena
- Etxeko lanen errepassoa
- Aurrekontuak.
- Besteak.